## 4- KULTURA-POLITIKA

Gizartea eta itsasoa uztartzeko lotura nabaria izan nahi du museo berriak. Horretarako kultura-politika bat zehaztu da, 4 lan-eremutan banatuta:

- Katalogazioa, ikerketa eta kontserbazioa, hainbat lan garatuz eskumeneko administrazioei laguntzeko beren esku-hartzeko politikak zehaztean.
- Ondarearen aktibazioa, hasiera batean kultura- eta gizarte-agenteak inplikatuz, eta jarraian errealitate historikoarekin bat datozen aktibazio-prozesuak zehaztuz. Horrek lurraldea kohesionatzeko aukera emango du, lurraldea osatzen duten elementu guztiei koherentzia eta ikuspegi historikoa emanez bakoitzaren interesa indartzeko diskurtso bateratu baten bitartez.
- Beste gune batzuekiko harremanak, lurraldeko kultura-, gizarte- eta ekonomia-agenteekiko lankidetza-esparruak ezarriz.
- Museo-proiektu bat definitzea, esku hartzeko irizpide eta lanak ezarriz bildumari, jakintzaren hedapen eta ikerketari, erakusketa-proiektuari eta programa pedagogikoari dagokienez.

## 5- KULTURA-PROGRAMAZIOA

### IKERKETA- ETA KONTSERBAZIO-PROIEKTUA

- Museo berriari buruzko edukiak eta gizarte-ekintzei lotutako kontakizunei buruzko edukiak sortzea.
- Gordailua Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroari katalogazio- eta kontserbazio-lanetan laguntzea.
- Itsas ondarearen arloko ikerketa-proiektuetan laguntzea.
- Ondare immateriala erregistratzea beste erakunde batzuekin elkarlanean.

### ERAKUSKETA-PROGRAMA honako hauetan oinarritzen da:

- Pertsona entzutetsuak berreskuratzea (hala nola Elkano, Blas de Lezo, Okendo, Urdaneta, Legazpi, eta abar) eta haien guztien garrantzi historikoan oinarritutako diskurtso bat garatzea.
- Euskaldunek itsas historiari egindako ekarpena.
- Euskal ontzigintzaren bilakaeraren funtsak (eraikuntza eta nabigazioa).
- Lurralde osoak (kostaldea eta barnealdea) euskal itsas historian duen garrantzia.

### KULTURA DINAMIZATZEKO PLANA

- Museoa gizartera erraz eta modu didaktikoan hurbiltzeko ekimenak.
- Dinamizazioa beste erakunde batzuekin elkarlanean, sare eta proiektu partekatuen bitartez.
- Artea sortzeko eztabaidak, gogoetak eta guneak aktibatzea.
- Museoa, balio anitzeko gune irekia itsasontzi tradizionalentzat (zaharberritzea eta nabigazioa).

### PROGRAMA PEDAGOGIKOA

- Familiakoekin balioak partekatuz ikasteko jarduerak, aisiarako eta entretenimendurako aproposak.
- Kulturaren kontsumo unibertsala ahalbidetzeaz gain, aniztasunak, irisgarritasunak eta inklusioak egungo gizartean duten garrantzia aldarrikatzen duten ekimenak.
- Itsas ondarean esperimentatzeko jarduerak.
- Eskola-bisitaldien programa bat garatzea, zenbait unitate didaktikotan egituratua.

## 4- POLÍTICA CULTURAL

El nuevo museo aspira a ser el nexo visible de la comunión entre la sociedad y el mar. Para ello se ha definido una política cultural que pivota en 4 ámbitos de trabajo:

- Catalogación, investigación y conservación, donde se desarrollarán diversos trabajos asistiendo a las administraciones competentes en la definición de sus políticas de intervención.
- Activación del patrimonio, inicialmente mediante la implicación de agentes culturales y sociales, y posteriormente definiendo procesos de activación acordes con la realidad histórica. Ello permitirá cohesionar el territorio dando coherencia y perspectiva histórica a todos los elementos que lo componen, mediante un discurso unitario que potencie el interés de cada uno de ellos.
- Relación con otros espacios, estableciendo marcos de colaboración con agentes culturales, sociales y económicos del territorio.
- Definición de un proyecto museológico, donde se establecerán los criterios y trabajos de intervención en lo relativo a la colección, a la investigación y difusión del conocimiento, al proyecto de exposiciones y al programa pedagógico.

## 5- PROGRAMACIÓN CULTURAL

### PROYECTO DE INVESTIGACIÓN Y CONSERVACIÓN

- Generación de contenidos del nuevo museo y de los relatos vinculados a las acciones de socialización.
- Soporte en materia de catalogación y conservación a Gordailua (Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa).
- Apoyo a proyectos de investigación en materia de patrimonio marítimo.
- Registro de patrimonio inmaterial junto con otras entidades.

### PROGRAMA DE EXPOSICIONES, basado en:

- La recuperación de personas ilustres (como Elcano, Blas de Lezo, Oquendo, Urdaneta, Legazpi, etc.) y el desarrollo de un discurso basado en la importancia histórica de todos ellos.
- La aportación vasca a la historia marítima universal.
- Las claves de la evolución naval vasca (construcción y navegación).
- La importancia del conjunto del territorio (tanto la costa como el interior) en la historia marítima vasca.

### PLAN DE DINAMIZACION CULTURAL

- Iniciativas para acercar el museo a la sociedad de una manera fácil y didáctica.
- Dinamización en colaboración con otras entidades a través de redes y proyectos compartidos.
- Activación de debates y reflexiones, e incluso espacios para la creación artística.
- Museo como un espacio abierto y polivalente para las embarcaciones tradicionales (restauración y navegación).

### PROGRAMA PEDAGÓGICO

- Actividades para el aprendizaje, el ocio y el entretenimiento, compartiendo valores en familia.
- Iniciativas que permitan un consumo universal de la cultura y reivindiquen la importancia de la diversidad, la accesibilidad y la inclusión en la sociedad actual.
- Actividades de experimentación en patrimonio marítimo.
- Desarrollo de un programa de visitas escolares estructurado en diversas unidades didácticas.

## 6- PARTE HARTU MUSEO BERRIAN

### MUSEO PARTIZIPATIBOA

Garrantzitsua da publikoekin parte hartzeko estrategia eta dinamiken bidez museoaren gizarte-funtzioari balio handiagoa ematea. Museoak egunero erabiltzeko tokia izan behar du, konfiantzazko gune bat, jendeari sortzeko eta partekatzeko, parte hartzeko eta laguntzeko gogoa emateko lekua.

Kultura-gobernantzaren kontzeptuan sakontzen ahaleginduko gara; horren arabera, publikoa da protagonista nagusia, eta beraz, museoaren orientazioak eta kudeaketak publiko hori izan behar du ardatz eta jomuga.

Horrela, publikoekin harremanetan jartzeko eredu bat ezarriko da, ideia txiki eta eraginkorretan oinarrituta (kultura-programazioa diseinatzeko tailerrak, komunitatearen parte-hartzea muntaketan, funtsak ekartzea eta elementu anonimoak sartzea erakusketa-edukietan, komunikazio hurbilagoa eta batez ere bi noranzkoetan, eta abar).

Ildo horretan, honako lan-ildo hauek pentsatu dira: Itsasgune espazioa, museoaren kanpoaldean tailerrak egitea eta boluntariotza-programa espezifiko bat garatzea. Gizarteratze-prozesua ere beste lan-ildo bat da.

### MUSEO-LURRALDEA / LURRALDE-MUSEOA

Itsas ondarea lurraldearen logika orokor baten arabera interpretatzeko premiatik eta eraikinaren espazio-mugetatik abiatuta, lurralde osoan kanpo-harremanak eta kultura-proposamenak ezarriko dira honako helburu hauekin:

- Batetik, museotik kanpo ere programatzeko, horrek proiektu partizipatiboagoak eta interesgarriagoak ahalbidetuko dituelako lurraldearen interpretazio-logikatik eta kultura- eta erakunde-agenteen metaketatik abiatuta.
- Eta bestetik, lurraldeak aukera izango du museoan kontzentratzeko eta islatzeko, museoaren kokapen estrategikoa aprobetxatuz fluxuak erakarri eta proiektatzeko gauza izango diren kultura-proiektuen bitartez.

## 6- PARTICIPA EN EL NUEVO MUSEO

### MUSEO PARTICIPATIVO

Es importante poner en valor la función social del museo a través de las estrategias y las dinámicas de participación con los públicos. El museo tiene que ser un lugar de uso cotidiano, un espacio de confianza que inspire al público a crear y compartir, a participar y colaborar.

Se tratará de profundizar en el concepto de gobernanza cultural, por el cual, el gran protagonista es el público y, por lo tanto, la orientación y gestión museística deben girar y estar orientadas en torno a él.

De esta manera se establecerá un modelo de relación con los públicos basado en pequeñas y efectivas ideas (como talleres de diseño de la programación cultural, participación comunitaria en el montaje, aportación de fondos e introducción de elementos anónimos en los contenidos expositivos, comunicación más accesible y sobre todo bidireccional, etc.).

El espacio Itsasgune, la realización de talleres en el exterior del museo y el desarrollo de un programa específico de voluntariado son líneas de trabajo pensadas en esta dirección. También lo es el presente proceso de socialización.

### TERRITORIO MUSEO / MUSEO DE TERRITORIO

Partiendo de la necesidad de interpretar el patrimonio marítimo bajo una lógica global del territorio, y de las propias limitaciones espaciales del edificio, se establecerán relaciones externas y propuestas culturales en el conjunto del territorio para:

- Por una parte, programar también de manera deslocalizada fuera del museo, lo que permitirá proyectos más participativos e interesantes desde la lógica de interpretación del territorio y de la acumulación de agentes culturales e institucionales.
- Y, por otra parte, el territorio podrá concentrarse y reflejarse en el museo mediante proyectos culturales que, aprovechen su ubicación estratégica y puedan captar y proyectar flujos.

UNTZI MUSEOA
MUSEO NAVAL

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN KULTURA

+info
**untzimuseoa.eus**
Donostia - Kaiko Pasealekua, 24
T. 943430051

Proiektuaren parte izan zaitez!
¡Sé parte del proyecto!

EUSKAL ITSAS MUSEOAren bidean

hacia el MUSEO MARÍTIMO VASCO

# Museoa berrituko dugu… laguntzen?
# Vamos a renovar el Museo… ¡contamos contigo!

Inauguratu zenez geroztik 26 urte igaro direnean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak Untzi Museoa indartu nahi du, eta horretarako berritu egingo du ekipamendu irekiagoa izan dadin, kultura hedatzeko eginkizunean aktiboagoa eta jendearengandik hurbilagoa.

2017ko Urria

Pasados 26 años desde su inauguración, el Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere fortalecer el Museo Naval con una renovación que culmine en un equipamiento más abierto, más activo en su labor de difusión de la cultura y más cercano al público.

Octubre 2017

**Hausnarketa eta parte-hartze gunea**
**Espacio de reflexión y participación**

UNTZI MUSEOA
MUSEO NAVAL

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN KULTURA

**EUSKAL ITSAS MUSEOAren bidean**

GIZARTERATZE-PROZESUARI hasiera eman zaio, lurraldeko kultura-agenteei eta herritarrei museo berriaren diseinuaren berri emateko eta kanpo-harremanen sare bat osatzeko, hartara museoa erreferentzia izan dadin euskal itsas historiari eta kulturari lotutako ekimenen artean.

**hacia el MUSEO MARÍTIMO VASCO**

Se inicia este PROCESO DE SOCIALIZACIÓN para hacer partícipe a la ciudadanía y a los agentes culturales del Territorio del diseño del nuevo museo, y para construir un entramado de relaciones externas que lo conviertan en un referente de las iniciativas vinculadas a la historia y cultura marítima vasca.

## 1- ERAIKINA: HISTORIA ETA ERABILERAK

### XVIII. MENDEA

Dorretxea da 1682an sortutako Donostiako Kontsuletxetik gure egunetara iritsi den arkitektura-arrasto bakarra. Noiz eraiki zen zehatz-mehatz jakiterik ez badago ere, gutxi gorabehera XVIII. mendearen erdialdean eraiki zela dirudi, hiriaren 1760ko plano batetik ondorioztatzen denez.

## 1- EL EDIFICIO: HISTORIA Y USOS

### SIGLO XVIII

La Casa-Torre es el único vestigio arquitectónico del Consulado de San Sebastián (fundado en 1682) que ha llegado a nuestros días. Si bien se desconoce la fecha exacta de su construcción, se cree que ésta debió efectuarse a mediados del siglo XVIII, según se deduce en un plano de la ciudad de 1760.





Donostiako portua handitzeko egin ez zen proiektu baten xehetasuna. Pedro Ignacio de Lizardi, 1773. Liburutegi Nazionala.

Detalle de un proyecto de ampliación del puerto de San Sebastián que no llegó a realizarse. Pedro Ignacio de Lizardi, 1773. Biblioteca Nacional.

### XIX. MENDEA

XIX. mendearen erdialdera arte, portugunean harresiz kanpo kokatutako eraikin bakarra izan zen, eta ingelesen eta portugesen erasoaren ondoren hirian zutik geratu ziren eraikin bakanetako bat da.

1813n hiriak jasan zuen sutearen eta txikizioaren ostean, dorretxea Kontsulatuaren eta San Pedro Arrantzale Kofradiaren egoitza ofizial bihurtu zen.

XIX. mendean, ongi zehaztu gabeko une batean, Estatuak dorretxea bereganatu zuen, eta herri-lan eta portuetako ministerioaren ardurapeko eraikin bihurtu zen. Horren adierazgarri, kanpoaldeko fatxadan ageri zen errotulu handia: *"Obras Públicas y Asuntos Marítimos"* ("Herri-lanak eta itsas gaiak").

### XX. MENDEA

1936ko uztailean, gerra zibilaren lehen egunetan, kaialdeko bizilagunek dorretxean hartu zuten aterpe.

1988. urtera arte, eraikinak askotariko eginkizunak izan zituen. Kaietako langilezainaren eta arduradunaren etxebizitza zen, eta Santa Klara uharteko farozainaren txalupa, urpekarien ekipamendua eta kaiko garbiketa eta lanen zerbitzuko tresnak gordetzeko ere erabili zen.

Autoak matrikulatzeko bulegoa ere izan zen, baita Herri Lanen Ordezkaritzako gidari baten bizilekua ere.

### SIGLO XIX

Hasta mediados del siglo XIX fue el único edificio situado extramuros en la zona portuaria, y es uno de los contados edificios de la ciudad que sobrevivió al ataque anglo-portugués.

Después del incendio y destrucción de la ciudad en 1813, la Casa-Torre se convirtió en sede oficial del Consulado y de la Cofradía de Mareantes de San Pedro.

En fecha indeterminada del siglo XIX la Casa-Torre pasó a manos del Estado, convirtiéndose en una dependencia del ministerio responsable de obras públicas y puertos. Así constaba en su fachada exterior mediante un gran rótulo que rezaba "*Obras Públicas y Asuntos Marítimos*".

### SIGLO XX

En julio de 1936, durante los primeros días de la guerra civil, la Casa-Torre fue utilizada como refugio por las personas que habitaban el muelle.

Hasta 1988, el edificio cumplió una serie heterogénea de funciones. Además de domicilio del capataz y encargado de muelles, sirvió para alojar la lancha del farero de la isla de Santa Clara, el equipamiento de los buzos del puerto y los utensilios del servicio de limpieza y obras del muelle.

Incluso llegó a ser utilizado como oficina para la matriculación de coches, y como vivienda de un chófer de la Delegación de Obras Públicas.



Donostiako portua. XIX. mendeko marrazkia. San Telmo Museoa.

Puerto de San Sebastián, dibujo del siglo XIX. Museo San Telmo.



"Kai-Arriba", Miguel Altuberen olio pintura, 1892. San Telmo Museoa.

"Kai-Arriba". Óleo de Miguel Altube, 1892. Museo San Telmo.

### 1991 EZKEROZTIK, UNTZI MUSEOA

1986ko apirilean, Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteak dorretxean untzi-museo bat sortzeko proposamena aurkeztu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Proposamen hori aintzat hartuz eta zenbait historialari eta teknikarien lanari esker, Donostiako Untzi Museoak 1991ko maiatzaren 23an ireki zituen ateak, euskal itsas ondarea zaintzeko, ikertzeko eta hedatzeko helburuarekin.

### DESDE 1991, MUSEO NAVAL

En abril de 1986, la Sociedad Oceanográfica de Gipuzkoa presentó a la Diputación Foral de Gipuzkoa una propuesta para la creación de un Museo Naval en la Casa-Torre.

Tomándose en consideración esta propuesta, y gracias al trabajo de varios historiadores y técnicos, el Museo Naval de San Sebastián abrió sus puertas al público el 23 de mayo de 1991 con el objetivo de salvaguardar, investigar y difundir el patrimonio marítimo vasco.



XX. mende hasierako argazkia.

Fotografía de comienzos del siglo XX.




Untzi Museoa, 1996.

Museo Naval, 1996.

2007an, Museoa ireki zenez geroztik 15 urte igaro ondoren, dibulgaziozko helburuak birformulatu ziren, eta erakusketa iraunkorra desmuntatu zen. Harrezkero, erakusketa horrek hartzen zuen tokian aldi baterako hainbat erakusketa antolatu dira, guztiak ere iraupen luzekoak.

En 2007, transcurridos 15 años desde la apertura del Museo, se reformularon los objetivos divulgativos y la exposición permanente fue desmontada. El espacio que ocupaba la misma se ha destinado desde entonces a exposiciones temporales de larga duración.

## 2- MUSEO BERRIAREN FORMULAZIOA

### INDAR-IDEIA, BERRITZE INTEGRALA

Museoak erronka handi bati egin behar dio aurre. Egungo nortasun-fasea gainditu behar du, eta beste posizionamendu bat bilatu etorkizuneko erronken aurrean (bildumen berrantolamendua, gizarteak sortutako edukiak, komunikazioa, gizartearen kontsumo- eta aisia-ohiturak, eta, azkenik, jardueren finantziazio iraunkorra).

Horregatik, berritze integral bat planteatu da, diskurtso, erronka eta helburu berrietan oinarrituta eta eskariarekin eta jakintza transmititzeko egungo moduekin bat etorriz.

## 2- FORMULACIÓN DEL NUEVO MUSEO

### IDEA FUERZA, LA RENOVACIÓN INTEGRAL

El museo se encuentra ante un reto importante. Debe superar la fase de identidad actual, y buscar un nuevo posicionamiento frente a retos de futuro (la reordenación de las colecciones, la generación de contenidos por parte de la sociedad, la comunicación, los hábitos de consumo y ocio de la sociedad, y finalmente la financiación sostenible de las actividades).

Por ello se plantea una renovación integral, sustentada en discursos, retos y objetivos renovados, acordes con la demanda y con los modos actuales de transmisión del conocimiento.

### KONTZEPTU KLASIKO BAT ABERASTEA

ICOM Museoen Nazioarteko Kontseiluak honela definitzen du museoa:

"Museo bat gizartearen zerbitzura eta jendearentzat zabalik dagoen eta gizateriaren ondare materiala eta immateriala ikerketa, hezkuntza eta aisiari lotutako helburuekin eskuratu, gorde, aztertu, ikusgai jarri eta zabaltzen duen irabazi-asmorik gabeko erakunde iraunkorra da".

Eta orain abiapuntuko planteamendu hori aberastu nahi da ikuspegi osagarri batzuekin:

- Museoko bilduma eta ondarezko beste pieza eta elementuak balioan jartzea.
- Kultura-ondare immateriala espezifikoki zaintzea.
- Euskal itsas ondarearen erakusleiho funtzionala izatea.
- Gaur egungo sormenarekin lotutako ekimenak integratzea.
- Agenteen arteko lankidetza indartzea.
- Publikoak erakartzeko estrategiak garatzea.
- Harremanetarako zentro dinamiko eta sozial gisa kokatzea, ingurune hurbilean zein nazioartean.

### ENRIQUECER UN CONCEPTO CLÁSICO

A partir de la definición de museo que establece ICOM:

"Un museo es una institución permanente, sin fines de lucro, al servicio de la sociedad y abierta al público, que adquiere, conserva, estudia, expone y difunde el patrimonio material e inmaterial de la humanidad y su ambiente con fines de estudio, educación y recreo".

Se pretende enriquecer este planteamiento de partida con una serie de visiones complementarias:

- Puesta en valor de la colección del museo, y de otras piezas y elementos patrimoniales.
- Salvaguarda específica del patrimonio cultural inmaterial.
- Escaparate funcional del patrimonio marítimo vasco.
- Integración de iniciativas relacionadas con la creación contemporánea.
- Potenciación de la colaboración entre diferentes agentes.
- Desarrollo de estrategias enfocadas a la captación de públicos.
- Posicionamiento como un centro dinámico, social y de relación, tanto en el entorno de cercanía como a nivel internacional.

### EGITEKOA

Euskal Herriko itsas historia eta ondarea kontserbatzeko, ikertzeko eta, batez ere, publiko guztietara zabaldu eta hedatzeko erreferentziazko kultura-ekipamendua izatea.

### MISIÓN

Equipamiento cultural referente, destinado a la conservación, estudio y, sobre todo, a la divulgación y difusión, para todos los públicos, de la historia y del patrimonio marítimo vasco.

### BALIOAK

Museo moderno, dinamiko eta publiko baten berezko balioak izango ditu, hala nola:

- Artearekiko, jakintzarekiko, ondarearekiko eta historiarekiko sentsibilitatea eta errespetua.
- Komunitate artistikoarekiko eta komunitate artistikoaren integrazioa.
- Kalitatearekiko konpromisoa.
- Publikoari orientatua.
- Asmo didaktikoa.
- Kanpoko agenteekiko integrazioa eta lankidetza.
- Gizartearekiko konpromisoa.
- Gizarte-inklusioa eta gizarte-berdintasuna sustatuko duten jarduerak egitea.
- Kokatuta dagoen lekuaren giza garapena eta garapen kolektiboa bultzatzea.

### VALORES

Los valores serán los propios de un museo moderno, dinámico y de carácter público:

- Sensibilidad y respeto por el arte, el conocimiento, el patrimonio y la historia.
- Integración con (y de) la comunidad artística.
- Compromiso con la calidad.
- Orientación al público.
- Vocación didáctica.
- Integración y cooperación con agentes externos.
- Compromiso con la sociedad.
- Desarrollo de actividades que fomenten la inclusión y la igualdad social.
- Impulso del desarrollo humano y colectivo del lugar donde se ubica.

## 3- TRESNAK

### ERAIKIN HOBE BAT

Datozen hilabeteetan hainbat lan egingo dira erosotasunarekin, irisgarritasunarekin, mugikortasunarekin eta arretarekin lotutako baldintzak hobetzeko.

### MARKA BERRI BAT

Egungo izenaren ordez (Untzi Museoa) Euskal Itsas Museoa jartzea planteatu da. Aldaketa horrek nortasuna berritzeko aukera ematen du, baita museoaren jarduera ikuspegi zabalago batetik begiratzeko eta bisitarien itxaropenetara egokitzeko aukera ere. Izena aldatzeko prozesuak aukera emango digu, batetik, hobeto kokatzeko, eta, bestetik, ikusle eta publiko berriekin konektatzeko.

## 3- HERRAMIENTAS

### UN MEJOR EDIFICIO

A lo largo de los próximos meses se ejecutarán diversas obras para mejorar las condiciones de confort, accesibilidad, movilidad y atención.

### UNA NUEVA MARCA

Se plantea sustituir el nombre actual (Museo Naval) por Museo Marítimo Vasco. Este cambio facilita una nueva identidad y permite, además, un enfoque más amplio de su actividad y una adecuación a las expectativas de las personas que lo visitan. El proceso de cambio de denominación es una oportunidad, ya que va a permitir un mejor posicionamiento y, a su vez, conectar con nuevas audiencias y públicos.